ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko apirilaren 1a, astelehena • 39 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako udalbatzaren 2019ko martxoaren 13ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita 2019an kultura taldeei dirulaguntzak emateko

BDNS(Identif.): 444419

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzen Lege Orokorrak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kultura elkarte eta entitate publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan izanik edo jarduera udalerri horretan eginik, legez eratuak edo erregistratuak badaude. Halaber, Udalerriko Elkarteen Erregistroan erregistratuta eta eguneratuta egon beharko dira.

Ondoko erakundeak deialdi honetatik kanpo geratuko dira: administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura xederik ez duten elkarte eta erakundeak, Nanclares kirol kluba, kirol talde eta elkarteak eta ikasleen gurasoen elkarteak (GE).

Egiten duen lana aitortzen zaio egoitza udalerrian duen eta urtean zehar, Iruña Okako Udalarekin elkarlanean, hainbat jarduera gauzatzen dituen elkarte honi:

— ARKIZ kultura elkartea.

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kultura jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, hain zuzen ere elkarte eta entitateek 2019. urtean Iruña Okan sustatzen dituztenak edo udalerriarentzat interesgarri jotzen ahal direnak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 7.250,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

30 egun natural, iragarki hau Udalaren iragarki taulan eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Langraiz Oka, 2019ko martxoaren 13a

Iruña Okako Udaleko alkatea
JOSE JAVIER MARTINEZ GARCIA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.04.01 05:25:52 Z